

## Xedapen Orokorrak

**LURRALDE ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA**

**Zk-2627**

104/1997 DEKRETUA, 1997ko maiatzaren 6koa, babes ofizialeko etxebizitzaren itunpeko sustaketari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioaren eta ekimen pribatuaren arteko lankidetzak izan duen arrakastak, lehenak lankidetzaren hori arautzeko eskuartu zueneko legezko baliapidea gainditu du, hain zuzen, babes ofizialeko etxebizitzaren hitzarmendutako sustapenei buruzko otsailaren 23ko 53/1988 Dekretua. Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioarekiko lankidetzan, ekimen pribatuak parte hartu ez ezik, etxebizitza sozialaren finantza neurriak eta erregimen juridikoa arautzeko 212/1996 Dekretuaren gehigarriko xedapenetatik bigarrenak gaituta, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A. baltzu publikoa sustatzaile ere egin da.

Ildo honetatik Dekretu honek otsailaren 23ko 53/1988 Dekretua hobetu, gaurkotu eta osatzeaz gain, itunpeko sustaketetan onartutako kontratazio erak hedatu nahi ditu, zortzi urteotako eskarmentuak indarrean arau ezargarria labur geratzen ari zela adierazten baitigu, zenbait itunpeko sustaketarako arazo jakinak konpontzeko zein babes ofizialeko etxebizitzaren sustaketan beharrezko zehatzak betetzeko ez zuelako beharrezko arintasuna eskaintzen.

53/1988 Dekretua indarrean egon deneko zortzi urtetan zehar, itunpeko sustaketarako zazpi mila etxebizitza baino gehiago eraikitzea, etxebizitza sozialaren sustaketa bai eta babes ofizialeko etxebizitzaren sustaketa pribatua baino askoz handiagoa bada ere, oraindik ez da nahikoa Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Euskal Autonomi Elkartearen dagoen beharrezko neurriak buruz egindako azterlanetan antzematen den babes ofizialeko etxebizitzaren defizita betetzeko lain. Azterlan hauek Etxebizitza Bideratzeko Egitasmoa 1996-1999 «Etxebide» delakoan islatzen dira. Egitasmo hau 1996ko maiatzaren 28ko bilkuran onetsi zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak eta Egitasmo honen xedea hau da: Euskal Autonomi Elkartearen bizilagunek etxebizitza duinaz goza dezatela ahalbideratzea. Bideratzeko Egitasmo honek jokabide orokorren dekalogoak jasotzen du, izan ere Dekretu honen edukia berri emango dute hamar puntuak, hauexek, alegia:

- 1.- Prezio neurtuko etxebizitzaren eskaintza ugaltzea.
- 2.- Prezio neurtuko eta errentan emateko diren etxebizitzaren eskaintza eratzea.

## Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO, VIVIENDA  
Y MEDIO AMBIENTE**

**Nº-2627**

DECRETO 104/1997, de 6 de mayo, sobre promociones concertadas de viviendas de protección oficial.

El éxito de la colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la iniciativa privada ha superado el instrumento jurídico de que aquella se dotó para articular dicha colaboración, es decir, el Decreto 53/1988 de 23 de febrero, sobre promociones concertadas de viviendas de protección oficial. Por un lado, no sólo la iniciativa privada ha venido colaborando con la Administración de la Comunidad Autónoma, sino que, habilitada por la disposición adicional segunda del Decreto 212/1996, sobre medidas financieras y régimen jurídico de las viviendas sociales, ha devenido en promotora la sociedad pública Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.

En este sentido el presente Decreto, además de mejorar, actualizar y completar el Decreto 53/1988 de 23 de febrero, tiene como objeto ampliar las formas de contratación admitidas en las promociones concertadas, puesto que la experiencia de estos ocho años nos dice que la normativa vigente aplicable se venía quedando corta al no proporcionar la agilidad suficiente tanto en orden a la solución de problemas puntuales en determinadas promociones concertadas, como a la satisfacción de necesidades concretas de promoción de viviendas de protección oficial.

La construcción, durante los ocho años de vida del Decreto 53/1988, de más de siete mil viviendas de promoción concertada, con ser una cantidad muy superior tanto a la promoción de viviendas sociales como a la promoción exclusivamente privada de vivienda de protección oficial es aun insuficiente para cubrir el déficit de vivienda de protección oficial que se desprende de los estudios de necesidad y vivienda realizado por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco reflejados en el Plan Director de Vivienda 1996-1999 «Etxebide», aprobado por Consejo de Gobierno en su sesión de 28 de mayo de 1996 y cuya misión es facilitar el disfrute de una vivienda, en condiciones dignas, a la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este Plan Director incluye un decálogo de estrategias generales que han de informar el contenido del presente Decreto, las cuales se detallan:

- 1.- Incrementar la oferta de viviendas de precio limitado.
- 2.- Crear una oferta de viviendas en alquiler a precios limitados.

3.- Badagoen etxebizitzaren ondareak duen gizarte mailako eraginkortasuna hobetzea.

4.- Behartsuagoak diren biztanle-taldeenganako diskriminazio positiboa gauzatzeko.

5.- Babes ofizialeko etxebizitzarekin bateragarri diren prezioak eskaintzea lurrerako.

6.- Aurrekontu-eskuarteak hobetzea.

7.- Etxebizitza eskuratzeko laguntza.

8.- Babespeko etxebizitzetako iruzurraren aurka jostzea.

9.- Sailaren jarduerak beste Erakunde batzuenekin koordinatzea.

10.- Herritarren atsegina hobetzea.

Norabide horien ildotik, hau da Dekretu honek lortu nahi duena: prezio mugatuko etxebizitzaren eskaintza handitu, dauden aurrekontu-eskuarteak hobetuz, itunpeko sustaketetarako onurak emanda eta, hala badagokio, Sailaren jarduerak beste erakunde batzuekin koordinatuta, Euskal Autonomi Elkartearen bizilagunetako etxebizitzaren arloan dituzten beharrezkoak betetzeko. Era berean, sustatzaile pribatuek Euskal Autonomi Elkartearen hain urria den baliabidea, hau da, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke lurra, eskura dezatela ahalbideratzen du Dekretu honek. Are gehiago, lurra azalera-eskubidean emateak nahikoa merketzen du etxebizitzaren salmenta edo errenta prezioa, beraz, etxebizitza horiek beharrezko dituztenek eskuratu dezatela errazten du.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez eta 1997ko maiatzaren 6an Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala.- Xedea eta Eremua.

Babes ofizialeko etxebizitzaren itunpeko sustaketetan arau izango diren erregimen juridikoa, onurak, lankidetzaren sistema, esleipen-prozedura eta erabilpen-erregimena arautzea da Dekretu honen xedea.

##### 2. atala.- Zertarakoa.

Dekretu hau aplikatzerakoan, honako hauek har ditezke itunpeko sustaketetatzat: Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioak eragindakoak eta arlo pribatu zein publikoak sustatuta, etxebizitzaren arloan diharduten eta azken honi atxikitako baltzu publikoak ere barne, Dekretu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen dituzten erosleentzat babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea helburu dutenak.

3. atala.- Erosleek gutxienez bete behar dituzten betekizunak.

Itunpeko sustaketako babes ofizialeko etxebizitza

3.- Optimizar la eficacia social del patrimonio de viviendas ya existente.

4.- Discriminar positivamente a los colectivos más necesitados.

5.- Ofrecer suelo a precios compatibles con la vivienda de protección oficial.

6.- Optimizar los recursos presupuestarios disponibles.

7.- Apoyar el acceso a la vivienda.

8.- Luchar contra el fraude en la vivienda protegida.

9.- Coordinar las actuaciones del Departamento con las de otras instituciones.

10.- Mejorar la satisfacción del ciudadano.

Siguiendo dichas líneas orientativas, el presente Decreto pretende incrementar la oferta de viviendas a precio limitado, optimizando los recursos presupuestarios existentes al conceder beneficios para las promociones concertadas y coordinando, en su caso, las actuaciones del Departamento con otras instituciones, todo ello en orden a satisfacer la necesidad de vivienda de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Así mismo el presente Decreto posibilita que los promotores privados puedan acceder a un recurso escaso en la Comunidad Autónoma del País Vasco como es el suelo para edificar viviendas de protección oficial. Más aún, la cesión del suelo en derecho de superficie permite abaratar de manera sustancial el precio de venta o renta de las viviendas, facilitando así el acceso de la población necesitada a dichas viviendas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 6 de mayo de 1997,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.- Objeto y Ámbito.

Es objeto del presente Decreto la regulación del régimen jurídico, los beneficios, sistema de colaboración, procedimiento de adjudicación y régimen de uso que han de regir en las promociones concertadas de viviendas de protección oficial.

##### Artículo 2.- Concepto.

A efectos de la aplicación de este Decreto tienen la consideración de promociones concertadas aquellas que, impulsadas por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y promovidas tanto por el sector privado como por el sector público, incluidas las sociedades públicas pertenecientes a éste último que actúen en el área de vivienda, tengan como finalidad la construcción de viviendas de protección oficial destinadas a adquirentes que reúnan las condiciones que establecen en el presente Decreto.

##### Artículo 3.- Requisitos mínimos de los adquirentes.

Los requisitos mínimos a acreditar por los adquiren-

erosi nahi dutenek gutxienez bete behar dituzten betekizunak itunpeko sustaketarako deialdi publiko bakoitzean ezartzen direnak izango dira, eta gutxienez honako hauek izango dira:

a) Kasuan kasuko itunpeko sustaketako babes ofizialeko etxebizitzan biziko den elkarbizitza-unitatea osatzen duten kide guztiek jabetza, azalera edo gozamen eskubidean ez izatea etxebizitzarik, eskabidea egiten denetik edo, esleipen prozedurarik egon ezean, kontratu pribatuaren ikus-onetsia egiten denetik aurre-aurreko bi urteen barruan. Salbuespenez, aldibaterako egoera hau Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren aginduz aldatu ahal izango da, sustaketa kokatuko deneko udalerriko eskariak hala eskatzen badu.

Halere, itunpeko etxebizitzak eskuratu ahal izango dituzte, beste edozein etxebizitzaren jabetzaren titular izan eta jabe diren etxebizitza ohiko eta bizitoki iraunkor erabili ezin dela kasuetakoren baten barruan daudela egiaztatzen duten erosleek. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren aginduz zehaztuko dira kasu horiek.

b) Itunpeko etxebizitzaren erosle izateko, elkarbizitza-unitatearen urteko irabazi ponderatuek, ezin izango dute gaintitu babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa ematean finantza neurriei buruz indarrean dauden arauetan, finantzaketa kualifikatuaren onuradun izateko, ezartzen den goi-muga. Dirusarrera horiek aipatutako arauetan ezarritakoaren arabera finakatuko dira eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea bukatuta, behin-behineko kalifikazioa eman den aurre-aurreko zergaldiari egokituko zaizkio.

Halaber, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak, horretarako emandako aginduz, betekizun gehigarriak ezarri ahal izango ditu deialdi bakoitzerako, kasuan kasuko udalerraren eskari-motaren arabera.

#### 4. atala.- Erregimen juridikoa.

Babes ofizialeko etxebizitzaren itunpeko sustaketak orohar eta alde guztiei dagokienetan, esleipenerako deialdi publikoa argitaratzean edo lankidetzahitzarmena izenpetzean indarrean dauden arauetan xedatutakoak arautuko ditu.

#### 5. atala.- Onurak.

1.- Euskal Autonomi Elkarte Administrazioak, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren bitartez, honako onura hauek eman ahal izango dizkie itunpeko sustaketei, aurretik egindako azterlan ekonomikoaren eta Sailak sustaketan duen interesaren arabera:

tes de vivienda de protección oficial de promoción concertada serán los establecidos en cada Convocatoria Pública de promoción concertada, que como mínimo serán:

a) Carencia de vivienda en propiedad, derecho de superficie o usufructo respecto de todos los miembros de la unidad convivencial que van a residir en la vivienda de protección oficial de promoción concertada de que se trate, dentro de los dos años inmediatamente anteriores a la fecha de la solicitud o del visado del contrato privado, en el caso de que no exista procedimiento de adjudicación. Excepcionalmente esta circunstancia temporal podrá ser modificada mediante Orden del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente cuando la demanda del municipio donde se ubique la promoción así lo requiera.

No obstante podrán acceder a las viviendas concertadas los adquirentes que fueran titulares del dominio de otra vivienda y acreditaran hallarse comprendidos dentro de alguno de los supuestos que determinen la imposibilidad de utilización como domicilio habitual y permanente, de la vivienda de la que ya son propietarios, que a tal efecto se determinen mediante Orden del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

b) Para acceder como adquirente a una vivienda concertada los ingresos anuales ponderados de la unidad convivencial no podrán superar el máximo que para ser beneficiario de financiación cualificada establezca la normativa sobre medidas financieras vigente en la fecha de otorgamiento de la Calificación Provisional de viviendas de protección oficial. Dichos ingresos se determinarán de conformidad con lo establecido en la referida normativa y harán referencia al período impositivo que, vencido el plazo de presentación de la declaración del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la fecha de otorgamiento de la citada Calificación Provisional.

Esto no obstante, el Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente podrá establecer, mediante Orden dictada al efecto, otros requisitos adicionales para cada convocatoria en función del tipo de demanda del municipio de que se trate.

#### Artículo 4.- Régimen Jurídico.

Con carácter general las promociones concertadas de viviendas de protección oficial se regirán, en todos sus aspectos, por lo dispuesto en la normativa vigente en el momento de la publicación de la convocatoria pública de adjudicación o en el de la suscripción del convenio de colaboración.

#### Artículo 5.- Beneficios.

1.- La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, podrá conceder a las promociones concertadas los siguientes beneficios, en función del estudio económico previo y del interés para el Departamento de la promoción:

a) Bere jabetzapeko lurak uztea, ordainbidezko azalera-eskubidea eratuz, indarreango araudian finkatutako betekizunen arabera.

Azalera-eskubidea ordainbidez ematea zenbatekoaren arabera aginpidedun den organoak baimendu beharko du, Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeak ezartzen duen bezalaxe.

b) Urbanizatzeko-kostuaren zatikako edo guztizko dirulaguntza, poligonoaren edo hirigintza-unitatearen heineko zatiari dagokionean zein eraikuntzari erantsitako obrei dagozkien.

c) Laguntza teknikoaren kostuaren zatikako edo guztizko dirulaguntza, arkitektura eta urbanizatzeko-proiektuak idaztearen eta obraren zuzendaritza eta ikuskaritzaren kostuak horrelakotzat jota. Esleipendunari proiektuak ematea zertarako horregatik gauzaz emandako dirulaguntzat hartuko da.

2.- Zerrendatutako onuraren bat edo guztiak bategarria, egiten den deialdi publikoaren oinarri-arauetan zein, esleipen zuzena izanez gero, izenpetu beharreko Hitzarmenean zehaztu beharko da.

3.- Onura hauek eta babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko indarreango legeetan ezarritako dirulaguntzak bateragarriak izan ahalko dira, bai sustatzaileari bai erosleei dagokienetan.

6. atala.- Erakunde publikoekin eta pribatuekin lankidetzazko sistema.

1.- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, Dekretu honek arautzen dituen sustaketak burutzekotan, lankidetzazko-hitzarmenak itundu ahal izango ditu, bai Toki-Erakundeekin bai irabazizko xederik ez duten beste Erakunde Publiko edo Pribatuekin.

2.- Hona hemen Hitzarmen horien xedea: xedapen honetan jasotako onuren emakidan bakoitzak izango duen partaidetza eta jaso beharreko ordainak finkatzea, Erakunde laguntzaileak sustatzaile suertatzen denari onurok emateko konpromesua bere gain hartuta beti ere.

3.- Lankidetzazko-hitzarmen horiek gauzatzeko, aurretik deialdi publikoa egin edo, esleipen zuzena bada, Hitzarmena izenpetu beharko dira eta horren edukia oinarri-arauak eta aipatutako Hitzarmenaren edukia jasoko ditu.

7. atala.- Sustatzailea hautatzeko sistema.

Itunpeko sustaketetarako onuren esleipena prozedura irekiz gauzatu da eta esleitzeko modua lehiaketa izango da orohar. Honi dagokionez, Dekretu honek arautzen ez duenari administrazioaren kontratazioaren arloan indarrean dauden legeak ezarriko zaizkio ordez.

Salbuespenez, Sailak esleipen zuzenez finkatu ahal izango du onuradunaren nortasuna, esleipenduna zuzenbide publikoko erakunde zein baltzua, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioak bere kapitalean parte hartzen badu, gutxiengoan izan arren, izanez gero

a) Cesión de terrenos de su propiedad, a través de la constitución de Derecho de Superficie a título oneroso en los términos y con las condiciones señaladas en la normativa urbanística en vigor.

En cuanto a la cesión a título oneroso del derecho de superficie, ésta deberá ser autorizada por el órgano competente según cuantía, tal y como establece la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi.

b) Subvención parcial o total del coste de urbanización, tanto de la correspondiente a la parte proporcional del polígono o de la unidad urbanística como de la referente a obras anexas a la edificación.

c) Subvención parcial o total del coste de la asistencia técnica, considerando como tal los costes de redacción del proyecto de arquitectura, del de urbanización y de la dirección e inspección de obra. La entrega de proyectos al adjudicatario se considera subvención en especie por este concepto.

2.- La concurrencia de todos o alguno de los beneficios relacionados se especificará tanto en las bases de la convocatoria pública que se efectúe como en el Convenio a suscribir en el caso de adjudicación directa.

3.- La percepción de estos beneficios será independiente y compatible con las ayudas establecidas en la legislación vigente de viviendas de protección oficial, tanto respecto a promotor como a adquirentes.

Artículo 6.- Sistema de colaboración con entidades públicas y privadas.

1.- El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, al objeto de llevar a cabo las promociones reguladas por este Decreto, podrá concertar Convenios de Colaboración, tanto con Entidades Locales como con otros Entes Públicos o Privados sin ánimo de lucro.

2.- Será objeto de estos Convenios la determinación de las respectivas participaciones en la concesión de los beneficios recogidos en esta norma y las contraprestaciones a percibir, comprometiéndose, en todo caso, la Entidad colaboradora a conceder dichos beneficios a quien resulte promotor.

3.- La formalización de estos Convenios de Colaboración será previa al emplazamiento de convocatoria pública o suscripción de Convenio en caso de adjudicación directa y sus términos integrarán las Bases y el contenido del citado Convenio.

Artículo 7.- Procedimiento de Selección del Promotor.

Como regla general la adjudicación de las promociones concertadas se llevará a cabo por el procedimiento de licitación abierto y la forma de adjudicación de concurso. A este respecto, en lo no regulado por este Decreto se aplicará supletoriamente la legislación vigente en materia de contratación administrativa.

Excepcionalmente, el Departamento podrá determinar la identidad del beneficiario mediante adjudicación directa, únicamente en el supuesto de que el adjudicatario sea bien una entidad de derecho público, bien una sociedad del sector público en la que la Administración

soilik eta honen xede sozialak babes ofizialeko etxebizitzaren sustaketarekin zerikusirik badu. Onurak aipatutako sustatzaileak eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak izenpetu beharreko Hitzarmenaren bidez finkatuko dira.

8. atala.- Deialdi Publikoaren Oinarri-arauek eta, esleipen zuzenetan, Hitzarmenek gutxienez jaso beharreko edukia.

1.- Finantza Plangintza eta Kudeaketarako zuzendaria izango da babes ofizialeko etxebizitzaren itunpeko sustaketaren proposamenak aurkezteko deialdia egingo duena, 3. atalean aipatutako egoerak aginduz aldatzen ez badira, behintzat. Kasu honetan Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua izango litzateke deialdia egingo lukeena.

2.- Deialdi bakoitzean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta sustaketa egingo deneko Lurralde Historikoan hedapen handienetako egunkari batean argitaratuta emango zaiola publikotasuna, edo, esleipen zuzenetan, hitzarmen bakoitzean honako oinarritzko epigrafe hauek azalduko dira berariaz:

a) Sustaketa gauzatuko deneko lurraren identifikazioa eta deskribapena, gutxienez honako datu hauek azalduta:

- Kokapena.
- Azalera.
- Hirigintzazko egoera.

b) Sustaketaren ezaugarri teknikoak. Ezaugarri horiek, nolahi ere, babespen ofizialeko etxebizitzak disenatzeko indarrean dauden arauak atxiki beharko zaizkie.

c) Erakintzarekin batera egin beharreko urbanizatze-lanen deskribapena eta ezaugarriak.

d) Gehienez ere eraiki beharreko etxebizitza-kopurua.

e) Sustaketan eraiki beharreko garajeak, trasteroak eta merkataltegien azalera eta horiek eskualdatzeko erregimena.

f) Obrei hasiera emateko eta sustaketa erabat burutzeko epeak, bai eta sustaketa ondo joateko kasuan kasuan beharrezkoak diren agiriak aurkezteko ere.

g) Orotariko aurrekontua.

h) Esleipen edo salmenta prezioa gehienez ere edo, lehenengo eskualdaketa izanez gero, errentarako prezioa gehienez ere, etxebizitzaren azalera erabilgarriaren metro karratuko.

i) Proiektatutako sustaketan batzen diren onurak, xedapen honen 5.2 atalean adierazitakoaren arabera.

de la Comunidad Autónoma del País Vasco participe en su capital aunque sea de modo minoritario, siempre que su objeto social guarde relación con la promoción de viviendas en régimen de protección oficial, determinándose los beneficios mediante Convenio a suscribir entre el referido promotor y el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

Artículo 8.- Contenido mínimo tanto de las Bases de la Convocatoria Pública como del Convenio en la Adjudicación Directa.

1.- Será el Director de Planificación y Gestión Financiera quien emplazará convocatoria pública para la presentación de propuestas de promoción concertada de viviendas de protección oficial, salvo que sean modificadas mediante Orden las circunstancias mencionadas en el artículo 3, caso en el que sería el Consejero del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente quien emplazaría la citada convocatoria.

2.- En cada convocatoria, realizada con la debida publicidad mediante su inserción en el Boletín Oficial del País Vasco y en uno de los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico en el que se proyecte la promoción, o en cada convenio, en el caso de adjudicación directa, figurarán expresamente los siguientes epígrafes fundamentales:

a) Identificación y descripción del terreno sobre el que se llevará a cabo la promoción, señalando los siguientes datos mínimos:

- Localización.
- Superficie.
- Situación urbanística.

b) Características técnicas de la promoción, que, en todo caso, deberán ajustarse a las vigentes Ordenanzas de diseño de Viviendas de Protección Oficial.

c) Descripción y características de las obras de urbanización a acometer simultáneamente con la edificación.

d) Número máximo de viviendas a construir.

e) Plazas de garaje, trasteros y superficie de locales comerciales a construir en la promoción y régimen de transmisión de los mismos.

f) Plazos máximos de inicio de las obras, y de ejecución total de la promoción, así como de presentación de la documentación oportuna que en cada caso concreto requiera la buena marcha de la promoción.

g) Presupuesto de contrata.

h) Precio máximo de adjudicación o venta, o precio máximo de renta en su caso, en primera transmisión, por metro cuadrado de superficie útil de vivienda.

i) Beneficios concurrentes en la promoción proyectada, de conformidad con lo señalado en el artículo 5.2 de esta norma.

j) Dauden Lankidetzak-Hitzarmenak eta hauen ezaugarriak.

k) Azalera-eskubidea eratzeko betekizun tekniko eta juridikoak.

Aipatutakoez gain, honako hauek ere adierazi behar dira, sustaketa lehiaketaren bidez esleitzen bada:

l) Lehiaketa arautuko duten administrazioaren alorreko berariazko klausulak.

m) Proposamenak aurkezteko epea, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

3.- Deialdi horietara pertsona naturalak eta juridikoak, espainiarrak zein atzeritarak, aurkeztu ahal izango dira, jarduteko gaitasun osoa izan eta euren erregimen juridikoetako xedapenen arabera eratuta egonda, herri-administrazioen kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 15. eta ondorengo ataletan eskatutako betekizunak betetzen dituztenak.

Obren burutzapena sustaketa-erakuntza zuzenez zein enpresa eraikitzailearekin sustaketa-kontratazio osoz gauzatu behar da, sistemaren hautaketa eskaintzan zehaztu behar dela. Lehiakidea ez den enpresa eraikitzailearekin kontratazio osoa eginez gero, eskaintzan enpresa horren nortasuna jaso behar da eta kontratu-agiriak erantsi. Era berean enpresa eraikitzaileei, Herri-Administrazioarekin aurrekontu bereko lanak kontratatzeke eskatzen den sailkapen bera eskatuko zaie, bai eta zerga- eta gizarte segurantzaren ordainbeharra bete egin dutela egiaztatzea ere.

Deialdi publikora aurkeztu nahi diren Etxebizitza Kooperatibek, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legean, Euskal Autonomi Elkartearena, eta osagarritzko xedapenetan xedatutakoari atxiki behar dio euren erregimen juridikoa eta kasuan kasuko Erregistroan izena eman.

#### 9. atala.- Proposamenak.

Proposamenak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean aurkeztu behar dira, deialdi bakoitzean adierazten den epean eta, horiekin batera, deialdian adierazten diren agiriak. Honakoak, berriz, kasu guztietan aurkeztu behar dira:

a) Maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 15. eta ondorengo ataletan eta 13/1995 Legea zati batean garatzen duen martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren 4. eta ondorengo ataletan ezarritakoaren arabera, proposamen-egilearen eta, hala balitz, horren ordezkapenaren nortasuna egiaztatzen duena.

b) Maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 20. atalean eta martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuaren 7., 8. eta ondorengo ataletan oharmandakoaren arabera, zerga- eta gizarte segurantzaren ordainbeharra bete egin dela egiaztatzen duena.

c) Sustaketaren ezaugarrien deskribapena, haren

j) Convenios de Colaboración existentes y términos de los mismos.

k) Condiciones técnicas y jurídicas de la constitución del derecho de superficie.

Además de los señalados deberán figurar, en el caso de promoción mediante la forma de adjudicación de concurso, los siguientes epígrafes:

l) Cláusulas administrativas particulares que regirán el concurso.

m) Plazo de presentación de propuestas una vez publicada la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.- A estas convocatorias podrán presentarse las personas naturales y jurídicas, españolas o extranjeras que, teniendo plena capacidad de obrar y constituidas de acuerdo a las normas reguladoras de sus respectivos regímenes jurídicos, cumplan los requisitos exigidos en los artículos 15 y siguientes de la Ley 13/1995, de 18 de mayo, de contratos de las administraciones públicas.

La ejecución de las obras habrá de llevarse a cabo bien por el sistema de promoción-construcción directa, bien por el de promoción-contratación total con empresa constructora; la determinación del sistema habrá de venir especificada en la oferta. En el caso de contratación total con empresa constructora distinta del concursante, en la oferta habrá de reflejarse la personalidad de dicha empresa adjuntándose los documentos contractuales. Así mismo se exigirá a las empresas constructoras idéntica clasificación que la requerida para la contratación de obras de igual presupuesto con la Administración Pública, así como la acreditación del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de seguridad social.

Las Cooperativas de Vivienda que opten a la convocatoria pública habrán de ajustar su régimen jurídico a lo dispuesto en la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi, y demás normas complementarias, e inscribirse en el correspondiente Registro.

#### Artículo 9.- Propuestas.

Las propuestas se presentarán en el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente en el plazo señalado en cada convocatoria y deberán contener la documentación que se indique en la convocatoria y en todo caso:

a) Aquella que acredite la personalidad y representación, en su caso del proponente en los términos señalados en los artículos 15 y siguientes de la Ley 13/1995, de 18 de mayo y los artículos 4 y siguientes del Real Decreto 390/1996, de 1 de marzo, de desarrollo parcial de la Ley 13/1995.

b) Aquella que acredite el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social, de acuerdo con lo previsto en el artículo 20 de la referida Ley 13/1995, de 18 de mayo y los artículos 7, 8 y siguientes del Real Decreto 390/1996, de 1 de marzo.

c) Descripción de las características de la promoción

balorazio tekniko, hirigintzazko eta arkitektonikoa egi-tea ahalbideratzen duena.

d) Gastu eta dirusarrera guztien banaketa.

e) Etxebizitzen, eraskinen eta erabilpen librekoak ez diren berariazko elementuen esleipen edo salmenta prezioa lehenengo eskualdaketan, edo gehieneko errenta, alogeran egonez gero.

f) Erosleentzako finantzaketa-sistemak eta ordaintzeko baldintzak.

g) Estatutuak eta barne-funtzionamendurako erregimena, Kooperatiba, Elkarrekin edo Fundazioen batek egiten badu sustaketa.

*10. atala.*– Onuren esleipena lehiaketa bidezko jardunbidean.

1.– Proposamenak aurkezteko epea bukatzen denetik hiru hileko epearen barruan, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Finantza Plangintza eta Kudeaketarako zuzendariak, Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzako hiru teknikariek osatutako organo kolegiatu batek aurkeztutako proposamena aztertuta, erabakia emango du, deialdian jasotzen diren onurak proposamen onuragarrienari emateko edo hutsik deklaratzeko.

2.– Onurak esleitzeko, aurkeztutako proposamenak baloratuko dira, deialdian ezarritako irizpideen arabera. Honako hauek hartuko dira kontutan beti ere:

a) Lizitatzailleak jotako orotariko aurrekontua.

b) Proiektutako sustaketak ekarritako hirigintza eta arkitektura aldetiko irtenbidea.

c) Proiektua aurkeztu gabeko lehiaketa bada, eskaini den etxebizitzaren salmenta edo errenta prezioaren eta sustaketako materialen eta instalazioen kalitatearen arteko erlazioa. Proiektua aurkezten deneko lehiaketa bada, eskainitako prezio horren eta deialdi publikoak onartzen duen gehienaren arteko erlazioa.

d) Erosleentzako proposatutako finantzaketa-sistema eta baldintza ekonomikoak.

e) Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak kasuan kasuko sustaketaren berezitasunen arabera, deialdi bakoitzean ezar dezakeen beste edozein irizpide.

*11. atala.*– Onurak eskuratzea.

1.– Azalera-eskubidea notario-eskrituran gauzatu beharko da eta ondoren Jabego Erregistroan egingo da eratze-inskripzioa. Xedea ondo bideratzeko beharrezkoak diren betekizun erabakigarriak ezarri ahal izango dira.

2.– Sustaketaren urbanizazio-kostuari dagokion emandako dirulaguntza Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean obra burutu deneko egiaztagiria aurkeztean ordainduko da, kasuan kasuko

que permita una valoración técnica, urbanística y arquitectónica de la misma, en su caso.

d) Desglose de gastos e ingresos por todos los conceptos.

e) Precio de adjudicación o venta en primera transmisión, o renta máxima en caso de arrendamiento, de las viviendas, anejos y elementos privativos que no sean de libre disposición.

f) Sistema de financiación y condiciones de pago de los adquirentes.

g) Estatutos y régimen de funcionamiento interno en el caso de promoción por Cooperativa, Asociación o Fundación.

*Artículo 10.*– Adjudicación de Beneficios en Procedimiento de Concurso.

1.– Dentro de los tres meses siguientes a la finalización del plazo de presentación de plicas, el Director de Planificación y Gestión Financiera del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente dictará resolución a la vista de la propuesta formulada por un órgano colegiado formado por tres técnicos de la Dirección de Planificación y Gestión Financiera, concediendo los beneficios integrantes de la convocatoria a aquella propuesta que resultara más ventajosa o declarándola desierta.

2.– Para la adjudicación de beneficios se procederá a la valoración de las propuestas presentadas con arreglo a los criterios establecidos en la convocatoria. En todo caso se tendrá en cuenta:

a) Presupuesto estimado por el licitante.

b) Solución urbanística y arquitectónica aportada por la promoción proyectada, en su caso.

c) En el caso de concurso sin entrega de proyecto, relación entre el precio ofrecido de venta o renta de las viviendas con la calidad de los materiales e instalaciones de la promoción. Para el caso de concurso con entrega de proyecto, relación entre dicho precio ofrecido respecto del máximo permitido por la convocatoria pública.

d) Sistema de financiación y condiciones económicas propuestas para los adquirentes.

e) Cualquier otro criterio que pueda establecerse en cada convocatoria por la Dirección de Planificación y Gestión Financiera de acuerdo a las particularidades de cada promoción.

*Artículo 11.*– Percepción de Beneficios.

1.– La formalización del Derecho de Superficie se realizará en escritura pública y posteriormente se realizará su inscripción constitutiva en el Registro de la Propiedad pudiendo establecerse las condiciones resolutorias precisas para el buen fin del objeto.

2.– El abono de la subvención concedida correspondiente al coste de urbanización de la promoción se realizará contra presentación ante el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente

Lurralde Ordezkaritzak egindako txostena eman ondoren.

3.- Zerbitzusari teknikoei dagokien emandako dirulaguntza, Sail honetako Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak deialdian adierazitako epean proiektua onetsitakoan, proiektua idazteari, hala behar izanez gero, edo obraren zuzendaritza eta ikuskaritzari dagozkien minutak aurkeztean ordainduko da, kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzak egindako txostena eman ondoren.

4.- Dekretu honek arautzen dituen onurak, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorrari daude atxikita, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan araututa dagoena.

#### 12. atala.- Azalera-eskubidearen indargaltzea.

Lurraren araubide eta hiri-antolaketari buruzko Legearen Bateratutako Testua onesten duen ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren 289. atalean eta eratze-tituluan adierazitakoaz gain, azalera-eskubidea indargaldu ahal izango da, Dekretu honetan xedatutakoaren babespean sustatutako sustaketa osoa deskalkifikatzen bada, eta, ondorioz, azaleraren jabeari itzuli beharko zaio.

#### 13. atala.- Erabilpen erregimena.

1.- Itunpeko sustaketaren bidez eraikitako etxebizitzak, urriaren 31ko 31/1978 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzen duten xedapenetan ezartzen den babes ofizialeko etxebizitzaren legezko erregimenari egongo dira atxikita.

Erregimen horrek indarraldia duen bitartean, etxebizitzaren jabaria, zertarakoa, erabilpena, zaingoa eta aprobetxamendua babes ofizialeko etxebizitzari buruzko indarreango legei atxikiko zaizkie.

2.- Babes ofizialeko etxebizitzari buruzko indarreango legeetan ezarritako betekizunez gain, xedapen honen babespean eraikitako etxebizitzaren bizi arteko emakida egiteko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko kasuan kasuko Lurralde ordezkararen berariazko baimena lortu beharko da, dagokion Lurralde Historikoan. Behin betiko kalifikazioa ematen denetik hamar urteko epean zehar beharrezko izango da, aipatutako baimena lortzeko, lehiaketarako deialdi publikoan eskatutako betekizun berberak betetzen dituzten erosleen alde egitea eskualdaketa. Hamar urte horiek igarotakoan, finantzaketa kualifikatuaren onuradun izateko eskatutako betekizun orokorrak betetzen dituzten erosleen alde egin ahal izango dira eskualdaketak.

Ondorio hauetarako, eta ikus-onetsia jaso dezaten, itunpeko sustaketako babes ofizialeko etxebizitzaren saltzailak aurkeztu egin beharko dituzte erosleak aipatu-

de la correspondiente certificación de realización de obra, previo informe realizado por la Delegación Territorial correspondiente.

3.- El abono de la subvención concedida, correspondiente a honorarios técnicos se realizará, una vez que el proyecto sea aprobado por la Dirección de Vivienda y Arquitectura de este Departamento en el plazo señalado en la convocatoria, contra la presentación de las correspondientes minutas relativas a redacción de proyecto, en su caso, o a dirección e inspección de obra, previo informe de la Delegación Territorial correspondiente.

4.- Los beneficios regulados en este Decreto están sujetos al régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, regulado en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

#### Artículo 12.- Extinción del Derecho de Superficie.

Además de las señaladas en el artículo 289 del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana y las establecidas en el título de constitución, será causa de extinción del derecho de superficie la descalificación de la totalidad de la promoción impulsada al amparo de lo dispuesto en este Decreto y por lo tanto su reversión al superficiante.

#### Artículo 13.- Régimen de uso.

1.- Las viviendas edificadas a través de una promoción concertada estarán sujetas al régimen legal de las viviendas de protección oficial establecido en el Real Decreto Ley 31/1978, de 31 de octubre y disposiciones que lo desarrollan.

Mientras esté vigente dicho régimen, el dominio, destino, uso, conservación y aprovechamiento de las mismas estarán sometidos a la legislación vigente de viviendas de protección oficial.

2.- Sin perjuicio de las obligaciones establecidas en la normativa vigente sobre viviendas de protección oficial, la cesión inter vivos, por cualquier título, de las viviendas construidas al amparo de la presente norma requerirá autorización expresa del Delegado Territorial del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco en el Territorio Histórico de que se trate. Durante el plazo de diez años a partir de la concesión de la Calificación Definitiva será necesario, para la concesión de la autorización mencionada, que la transmisión se realice en favor de adquirentes que reúnan los mismos requisitos que los exigidos en la convocatoria pública de concurso. Pasados estos diez años las transmisiones podrán realizarse en favor de adquirentes que reúnan los requisitos legales exigidos para ser beneficiario de financiación cualificada.

A estos efectos los vendedores de viviendas de protección oficial de promoción concertada deberán presentar, para su correspondiente visado la documenta-



tako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak bai eta salerosketa kontratu pribatua ere.

Kasuan kasuko eskabidea aurkezten denetik hiru hileko epea igarotzen bada besterenganatzerako beraiazko baimena lortu gabe, ezestapen ondorioak ekarriko ditu honek.

3.- Etxebizitzen eta eraskinen prezioak, bigarren eta hurrengo eskualdaketetan, ezin izango du gainditu etxebizitzaren eta eraskinen azalera erabilgarria eta salerosketa kontratua gauzatzean ezargarri den indarreango moduloa eta lehenengo eskualdaketan ezarri zen koefiziente bera biderkatuzetik ematen duen emaitza.

4.- Finantzaketarik jaso ez duten itsatsi gabeko eraskinen eta merkataldegien eskualdaketak arautu behar dituen erregimen juridiko eta ekonomikoa, kasuan kasuko deialdiaren Oinarri-arauetan eta Pleguetan edo, hala badagokio, Hitzarmenean ezartzen dena izango da.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honi dagozkion dirulaguntza zuzenen bolumenak ez ditu Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean aipatutako ekitaldian izendatutako kredituak gaindituko ezta indarreango legediaren arabera kreditu transferentziak eginez gero, gaurkotzetik sortutako kreditua ere.

Ez da bidezko izango dirulaguntzak ebaztea, dirulaguntza horiek atxiki behar zaizkion aurrekontuak behar den xederako egoki eta nahikoa den kreditua ez badu. Kasu horretan Dekretu honen eta berau garatzeko ematen diren xedapenen eraginkortasuna ete egingo da, dirulaguntza berriak emateari dagokionez.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu hau ezargarri zaie itunpeko sustaketei, hain zuzen haien deialdi publikoa edo, esleipen zuzena bada, Hitzarmenaren izenpea, Etxebizitza arloko finantza neurriei buruzko uztailaren 30eko 213/1996 Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera egiten direnak.

#### INDARGABETZE XEDAPENA

Babes ofizialeko etxebizitzaren hitzarmendutako sustapenei buruzko otsailaren 23ko 53/1988 Dekretua eta Dekretu honetan xedatutakoaren aurka joan daitezen xedapenak indargabetu egingo dira bere babesean eraturakoak izan ezik Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

ción acreditativa de que el adquirente reúne las condiciones señaladas anteriormente, juntamente con el contrato privado de compraventa.

Tendrá efectos desestimatorios la falta de autorización expresa para la enajenación, transcurridos tres meses desde la presentación de la correspondiente solicitud.

3.- El precio de las viviendas y anejos en segundas y posteriores transmisiones no podrá superar el resultado de multiplicar la superficie útil de vivienda y anejos, por el Módulo vigente aplicable en el momento de la formalización del contrato de compraventa y por el mismo coeficiente que se aplicó a la primera transmisión.

4.- El régimen jurídico y económico que ha de regir las transmisiones de los anejos no vinculados que no hayan percibido financiación y locales comerciales será el que se establezca en las Bases y Pliegos de la convocatoria de que se trate o en el Convenio, en su caso.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El volumen total de las ayudas económicas directas correspondientes al presente Decreto no superarán los créditos consignados en la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el referido ejercicio o el crédito que resulte de su actualización en el caso de que se efectúen transferencias de crédito de conformidad con la legislación vigente.

No procederá la resolución de concesión de ayudas en el caso en el que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la eficacia del presente Decreto y de sus normas de desarrollo en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Lo dispuesto en el presente Decreto será de aplicación para aquellas promociones concertadas cuya convocatoria pública o suscripción de Convenio, en caso de adjudicación directa, sea posterior a la entrada en vigor del Decreto 213/1996, de 30 de julio, sobre medidas financieras en materia de vivienda.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor del presente Decreto queda derogado el Decreto 53/1988, de 23 de febrero, sobre promociones concertadas de viviendas de protección oficial y cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en aquél, sin perjuicio de que puedan seguir aplicándose situaciones creadas a su amparo.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* – Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak, bere eskuduntzen esparruan, Dekretu hau burutzeko eta garatzeko beharrezko izan daitezen xedapenak eman ahal izango ditu.

*Bigarrena.* – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta  
Ingurugiro sailburua,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## Zk-2628

ERABAKIA, 1997ko maiatzaren 9koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, 1996ko azaroaren 5eko Erabakia aldatzeko dena. Unibertsitateko Errektoregoaren egitura eta funtzionamendu-arloak eta eginkizunen ordezkapenak zehazteari buruzkoa zen aipatutako azken erabakia.

1996ko azaroaren 5eko Erabakiaren bidez zehaztu egin ziren Unibertsitateko Errektoregoaren egitura eta funtzionamendu-arloak eta errektorearen eginkizun batzuk ordezkatu ziren Unibertsitateko errektoreorde, idazkari orokor eta gerentearengan.

Baina, erabaki hori dela eta, beharrezko ikusi da testu horretan zehazki azalduta agertzen ez diren puntu batzuk argitzea, bai eta kontratazioaren alorreko ordezkapenak zehaztea ere.

Aipatutako guztia kontuan hartuta,

Unibertsitatearen Estatutuetako 77. eta 82. artikuluetan aipatutakoaren inguruan arautegi bereko 71. eta 75. artikuluek emandako ahalmenez baliatuz, eta Herri-Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 12. eta 13. artikuluetan adierazitakoaren arabera, ondokoa

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* – Se faculta al Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente a dictar, en el marco de sus competencias, cuantas disposiciones sean necesarias, para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.* – El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 1997.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,  
Vivienda y Medio Ambiente,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## Nº-2628

RESOLUCIÓN de 9 de mayo de 1997, del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se modifica la de 5 de noviembre de 1996, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento del Rectorado de la Universidad y de delegación de competencias.

Mediante Resolución de 5 de noviembre de 1996 se procedió a precisar la estructura y determinar las áreas de funcionamiento del Rectorado de la Universidad, así como a la delegación de competencias del Rector en los Vicerrectores, Secretario General y Gerente de la Universidad.

En este sentido, se ha comprobado la necesidad de precisar algunas cuestiones que en la misma no aparecen suficientemente pormenorizadas, así como de establecer una determinación específica de las competencias en materia de contratación.

Por todo ello,

Al amparo de las competencias que tengo conferidas en los arts. 71 y 75 de los Estatutos de la Universidad, en relación con lo previsto en los arts. 77 y 82 del mismo texto normativo, todo ello en relación con lo previsto en los arts. 12 y 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común,